



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Aldundiak Bizkaiko Udalen "udal autonomia bermatzen dau"

Bilbon, 2014ko zezeilaren 27an.

Unai Rementeria Lehendakartzako Diputatu eta Aldundiko Bozeroalea Batzar Nagusien aurrean agertu da gaur, Socialistas Vascos (PSE-EE) taldeak eskatuta, Lurralde Historikoko toki erakundeek aurrean daukien egungo eta etorkizuneko aukerak azaltzeko, urtarrilaren 1ean Toki Administrazioen Arrazionalizazio eta Iraunkortasun Legea indarrean sartu eta gero. Aldundiko arduradunak, Gernikan egindako osoko bilkuran egin eban moduan, Lege honek Euskadiko udalerrientzat dituan berezitasunak defendidu ditu, Estaduko ganerako lekuetakoak alderatuta, hiru Lurralde Historikoetako Udalentzat "udal autonomia bermatzen dauen" xedapena onartu eta gero. Rementeriak azpimarratu dauenez, EAJ-PNV-Euskal Taldeak Kongresuan negoziatutako aldaketari esker, udalerrien finantzen zainketea Foru Aldundien esku egongo da, eta ez Espainiako Gobernuaren esku, hasieran gura zan moduan.

Laburbilduz, Rementeriak azpimarratu dau ez Tokiko Legeak ahalmen "propioak eta bereziak" emoten deutsez Euskadiko Foru Aldundiei eta udalei. Udalerriak Eusko Legebiltzarreko Legeen eta hiru Batzar Nagusietako Arauen bitartez araututako dira, eta euren eskumenak zehazteko eta euren udal autonomia garatzeko ahalmena izango dabe, "iraunkortasuna eta finantzen egonkortasuna bermatzen bada", gogoratu dau.

Gobernu zentrala lege hori bultzatzera eroan dauen prozesuaren testuingurua azaldu eta gero, Rementeriak, Legeak baliogabetzen dituan udal eskumenak zehaztu ditu. Horreen artean, eta estatu mailan bakarrik, udalek irakaskuntzaren programazioan edo ikastetxe publikoen eta lehen arretako zentroen kudeaketan eta ikastetxe publikoen kontserbazioan, mantentze lanetan eta zainketan daukien partaidetza azpimarratu behar da. Halanda be, Legeak hainbat salbuespen jasoten ditu Euskadirentzat, foru berezitasuna dala eta. Euskadiko erakundeek eskumen propioak udalerrien esku itxi daikiez, eta Estaduko araudiagaz desadostasuna dagoanean, Eusko Legebiltzarrean eta Bizkaiko Batzar Nagusietan erabagitutakoak izango dau lehentasuna.

20.000 biztanletik beherako udalerrietan, Legeak, Aldundiak, udalakaz "ados jarrita" "koordinatu" beharko dituan zerbitzuen zerrenda jasoten dau. Zerrenda horretan sartzen dira, beste batzuen artean, hondakinen bilketea eta tratamendua edo ur hornidura eta tratamendua, Bizkaian lehendik be partzuergoen edo mankomunidadeen "esku dagozan" zerbitzuak.

Beste alde batetik, udalherri horreek, Aldundiaren esku geratuko dan zerbitzuaren "benetako kostua" ezagutarazoteko beharra izango dabe. Udalerriak zerbitzu horreek merkeago emoteko gai dala erakusten dauenean, bere esku hartuko ditu. Aldundiko bozeroaleak adierazo dauenez, "tresna informatiko bat" ari da prestetan, Udalek kostu horreek kalkulatu daiezan.

Rementeriak Aldundiak udalherri txikietan "ia osorik" bere gain hartzen dituan beste eskumen batzuk be gogoratu ditu. Estaduko ganerako lekuetan goi mailako beste erakunde batzuk hartzen ditue eskumen horreek euren esku. Horreen artean dagoz suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuak, administrazio elektronikoko zerbitzua edo hondakinen tratamendua 5.000 biztanletik beherako herrietan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Beste alde batetik, aurrekontuen egonkortasun edo zorpetze helburua beteten ez daben udalerrien kasuan, Legeak ekonomia-finantza plan bat egiteko beharra ezarten dau. Estaduko ganerako lekuetan Ogasun Ministerioak bere esku hartzen dauena, plan horreek egitea eta onartzea, Euskadin Foru Aldundien esku dago. Rementeriak gogoratu dauenez, Bizkaian “5 udal izan dira, lurraldeko 112etatik”, betebeharrak hori bete ez dabenak, eta bostak 5.000 biztanletik beherakoak dira.

Lehendakaritzako Diputatuak gogoratu dau, baita be, EAE-ko esparruan, toki korporazinoetako funtzionarioei eta beharginei buruz aurreikusitako eskumenak Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen esku dagozala, araubide autonomikoak ezarten dituan terminoetan. Rementeriak azpimarratu dau Bizkaiko Batzar Nagusiak dirala, eta ez Estaduko Aurrekontuen Legea edo estaduaren esku dagoan beste edozein, Bizkaiko udal sektore publikoko beharginen gehieneko ordainketak ezarten dituenak. Ganera, Euskadiko udalerrien beste salbuespen bat be argitu dau, estaduko gaikuntza daukien funtzionarioakaz, idazkariakaz eta kontu-hartzaileakaz, alderatuta aurreikusten jakezan eskumenak, Euskal Administrazioaren araudia betez gauzatzen diralako.

Rementeriak, Udaletan akordioa lortzeko gehiengoari buruzko aldaketea be aitatu dau. Holan, osoko bilkurak lehenengo bozketan akordioak hartzeko beharrezkoa dan gehiengoa lortzen ez dauenean, Gobernu Batzarra izango da ekitaldi bateko aurrekontua onartzeko eskumena izango dauena, luzatutako aurrekontua badago. EH Bilduko eta PSE-EE-ko bozeroaleek kritikau egin dabe puntu hori.

Bizkaiko Foru Aldundiko Bozeroaleak jakinarazo dau, baita, bilera bat eskatu dauela Eusko Jaurlaritzagaz, ganerako Foru Aldundiakaz eta EUDEL-egaz gai horren inguruan beharrean jarraitzeko.

BATZARRETAKO TALDEEN ERETXIA

Socialistas Vascos (PSE-EE) taldearen eretxiz, Estatu mailako lege “korapilatsu” eta “txarrak”, “ezegonkortasuna” eta “segurtasun faltea” eragin dau Bizkaiko Udaletan. Euskadiko udalerrriak Gobernu Zentralaren esku geratuko ez diran arren, sozialistek kritikau egin dabe Legeak “udalen autonomia erasoten dauela” eta eskumenen “foralizaziorako” joerea erakusten dauela. “Finantzen aldetik ondo egotea udalen autonomia baino garrantzitsuagoa izango da”, adierazo dau Iñaki Egaña bozeroaleak. Egañaren ustez, Udalek “zerbitzuak galduko ditue”.

Euskadiren “salbuespen egoerari” jagokonez, Egañaren ustez Rementeriak esandakoa “ez dator bat errealidadeagaz”, berezitasun “gehienak” Autonomia Estatutuan bertan jasoten ziralako. Bere esku-hartzean Francisco Velasco katedradunak esandakoa gogoratu dau. “Eremu propioak”, “Udalak Aldundiaren mende egotea dakar”. “Gatazkea egon ezkerro, nork erabagiko dau?”, galdetu dau. Egaña uste dau Aldundiak erabagiko dauela, baina Rementeriak “udalen autonomia eta udalen adostasuna kontuan eukiko dala” erantzun dau.

EH Bilduren eretxiz, Legeak “udalen baliabideak mugatuko ditu”, eta “Aldundiaren esku-hartzea handituko dau”. Joseba Gezuragak esan dauenez “herritarrengandik gertuen dagoan erakundearen kontrakoa da”, eta, ganera, “esku-hartzea eta zainketea bultzatzen ditu”. Koalitzino abertzaleko bozeroaleak adierazo dauenez, orain udalerriek eskintzen dituen hainbat zerbitzuek lege horren eragina jasango dabe, “euskaltegiek, haurtzaindegiek edo garapen lankidetzarako egitasmoek”, besteak beste.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EH Bildu taldearen ordezkariak esan dauenez, Udalek “eskumenak galduko ditue”, Aldundien alde, Horrez gain, idazkariak eta kontu-hartzaileak “udalaren kudeaketea geratzeko” aukerea izateak arduratu egiten dauela adierazo dau. Gai horri jagokonez, Rementeriak adierazo dau Aldundiak Udalaren esku itxiko dauela “azkeneko erabagia”, “erreparo txostena” badago.

Gezuragak behin eta berriro esan dau Aldundia Bizkaiko udalakaz alkartu behar dala, “eta ez Eudeleko zuzendaritza taldeagaz bakarrik”, administrazio bakoitzaren eskumenen eremua azaltzeko. Lehendakartzako diputatuak “danakaz” alkartzen dala erantzun deutso.

EAJ-PNV-ko Batzarretako taldeak bere alderdiak, Rajoyren Gobernuak Toki Araubideko Oinarrien Legearen Bigarren Xedapen Gehigarria onartzeko Madrilen egindako beharra azpimarratu gura izan dau. Horren bitartez, Legeak Euskadiren berezitasuna, eta “udalen autonomia eta gure eskumenak bermatzeko” aukera emoten dauen eremu propioa jasoten ditu, esan dau Lorea Bilbao bozeroale jeltzaleak. EAJ-PNV-ko batzordekidearen esanetan, etorkizunean Euskadiko erakundeek “harreman estuagoak izan behar ditue, eredia sendotzeko”.

Esther Martínez Batzar Nagusietako PP-ko bozeroaleak esan dau Legea ez dala korapilatsua. “Beharrezkoa da, eta udalen eskumenak argitzeko behar dan konplexutasuna dauka”, udaletan sortu dan egoera dala eta. Legea, “administrazio bat, eskumen bat, finantzaketa bat” printzipioan oinarritzen da, eta “30 urte igaro eta gero” Euskadik daukan “gabezia” bat estaltzea, hau da, Udal Legerik ez egotea, konpondu gura dau. Ganerako taldeak bat etorri dira esandako horregaz. “Ceuta, Melilla eta Euskadi dira lege hori ez daukien bakarrak”, gehitu dau Bilduko Joseba Gezuragak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La Diputación "garantiza la autonomía municipal" de los ayuntamientos vizcaínos

Bilbao, a 27 de febrero de 2014.

El Diputado de Presidencia y Portavoz de la Diputación, Unai Rementería, ha comparecido hoy en las Juntas Generales, a petición del grupo Socialistas Vascos (PSE-EE), para explicar el horizonte presente y futuro que le aguarda a las entidades locales del Territorio Histórico tras la entrada en vigor, el 1 de enero, de la Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local. El responsable foral ha defendido en la Comisión Institucional, como ya lo hiciera ayer en el pleno celebrado en Gernika, las singularidades que supone esta Ley para los municipios vascos en comparación con los del resto del Estado, tras la admisión de una disposición que “garantiza la autonomía municipal” para los Ayuntamientos de los tres Territorios Históricos. Rementería ha subrayado que gracias al cambio negociado por el grupo parlamentario del PNV en el Congreso, la tutela financiera de los municipios recae en las Diputaciones Forales y no en el Gobierno de España como se pretendía en un inicio.

En resumen, Rementería ha recalcado que la Ley Local otorga a las Diputaciones Forales y a los ayuntamientos vascos capacidades “propias y especiales”. Los municipios se regirán por las Leyes del Parlamento Vasco y las Normas de las tres Juntas Generales, y dispondrán de la capacidad para determinar sus propias competencias y desarrollar su autonomía municipal, “siempre que se garantice su sostenibilidad y estabilidad financiera”, ha recordado.

Tras hacer una contextualización del proceso que ha empujado al Gobierno central a impulsar esta Ley, Rementería ha detallado, en primer lugar, las competencias municipales que la Ley elimina. Entre ellas, y sólo en el ámbito estatal, destacan la participación de los ayuntamientos en la programación de la enseñanza, o en la gestión de los centros docentes públicos y de los centros de atención primaria, así como la conservación, mantenimiento y vigilancia de colegios públicos. Sin embargo, la Ley recoge una serie de excepciones para Euskadi debido a su singularidad foral. Las instituciones vascas podrán atribuir competencias como propias a los municipios y, cuando exista discrepancia con la normativa estatal, prevalecerá lo legislado en el Parlamento vasco y en las Juntas Generales de Bizkaia.

En los municipios con menos de 20.000 habitantes, la Ley incorpora la relación de servicios que deberá “coordinar” la Diputación “en conformidad” con los ayuntamientos. Aquí se incluyen, entre otros, la recogida y tratamiento de residuos o el abastecimiento y tratamiento del agua, que en Bizkaia, ya “están en manos” de consorcios o mancomunidades.

Por otro lado, estos municipios tendrán la obligatoriedad de dar a conocer el "coste efectivo" del servicio que será repercutido por la Diputación. Cuando el municipio justifique que puede prestar servicios a menor coste, asumirá la prestación de los mismos. El portavoz foral ha anunciado que se está preparando una “herramienta informática” para que los ayuntamientos puedan calcular estos costes.

Rementería ha recordado también otras competencias que la Diputación viene asumiendo “casi en su totalidad” en los pequeños municipios, y que, en el resto del Estado, deberán ser realizadas por otros



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

órganos superiores, como son la prevención y extinción de incendios, los servicios de administración electrónica, o el tratamiento de residuos en municipios de menos de 5.000 habitantes.

Por otro lado, para aquellos municipios que no cumplan el objetivo de estabilidad presupuestaria o de endeudamiento, la Ley establece la obligatoriedad de realizar un plan-económico financiero. Lo que en el resto del Estado es asumido por el Ministerio de Hacienda, en Euskadi corresponde a las Diputaciones forales la formulación y aprobación de dichos planes. Rementeria ha recordado que en Bizkaia, han sido “5 ayuntamientos, de un total de 112”, los que han incumplido esta premisa, si bien todos de menos de 5.000 habitantes.

El Diputado de Presidencia ha recordado también que, en el ámbito de la CAV, las competencias previstas respecto a los funcionarios y personal de las corporaciones locales corresponden a las Instituciones Forales de los Territorios Históricos, en los términos que establezca la normativa autonómica. Rementeria ha subrayado que son las Juntas Generales de Bizkaia, y no la Ley de Presupuestos del Estado u otra estatal, las que fijan el máximo de las retribuciones de los trabajadores municipales. Asimismo, ha aclarado otra excepción de los municipios vascos como son las facultades previstas sobre los funcionarios de habilitación estatal, los secretarios y los interventores, que son ejercidas según la normativa de la Administración Vasca.

Rementeria se ha referido a la modificación en lo que respecta a las mayorías, para adoptar acuerdos en los consistorios. Así, cuando el pleno no alcance en una primera votación la mayoría necesaria para la adopción de acuerdos, es la Junta de Gobierno la competente para aprobar el presupuesto de un ejercicio, siempre que exista un presupuesto prorrogado, algo que ha sido criticado por los portavoces de EH Bildu y el PSE-EE.

El Portavoz de la Diputación Foral de Bizkaia ha informado también que ha solicitado una reunión con el Gobierno Vasco, las demás Diputaciones Forales y EUDEL para “seguir trabajando sobre este tema”.

POSICIÓN DE LOS GRUPOS JUNTEROS

El grupo Socialistas Vascos (PSE-EE) cree que la “farragosa” y “mala” ley estatal ha generado “inestabilidad” e “inseguridad” en los ayuntamientos vizcaínos. Pese a que los municipios vascos no pasen a ser tutelados por el Gobierno central, los socialistas han criticado que la Ley “atente contra la autonomía municipal” y se incline hacia una “foralización” de las competencias. “Será más importante la suficiencia financiera que la autonomía municipal”, ha manifestado su portavoz Iñaki Egaña, quien augura que los ayuntamientos “perderán servicios”.

En cuanto a la “excepcionalidad” del caso vasco, Egaña cree que Rementeria “no se ajusta a la realidad”, ya que el propio Estatuto de autonomía ya recogía “la mayoría” de las singularidades, recordando en su intervención lo mantenido por el catedrático Francisco Velasco. El “marco propio” supone “dependencia de los ayuntamientos sobre la Diputación”. “¿En caso de conflicto, quién decidirá?”, ha preguntado. Egaña cree que será la Diputación quien lo haga, a lo que Rementeria ha contestado que “tendrán en cuenta la autonomía municipal y la conformidad de los ayuntamientos”.

Para EH Bildu, la Ley va a “limitar los recursos municipales” y va a “incrementar la intervención de la Diputación”. A juicio del apoderado Joseba Gezuraga, “atenta contra la institución más cercana a los ciudadanos”, por ser “intervencionista y tuteladora”. El apoderado de la coalición abertzale



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

augura que se verán afectados servicios que ahora ofrecen los municipios como “euskaltegis, guarderías o la cooperación al desarrollo”.

El representante de EH Bildu sostiene que los ayuntamientos “perderán competencias” en beneficio de las Diputaciones y le “preocupa” que los secretarios e interventores puedan llegar a “paralizar la gestión municipal”. En este aspecto, Rementería ha mantenido que la Diputación dejará en manos del ayuntamiento la "decisión final" en caso de “informe de reparo”.

Gezuraga ha insistido en varias ocasiones en que la Diputación debe reunirse con los ayuntamientos de Bizkaia “no sólo con la ejecutiva de Eudel” para explicarles el desarrollo del ámbito competencial de cada administración, a lo que el diputado de Presidencia ha matizado que ya se reúne con “todos”.

El grupo juntero del PNV ha querido destacar el trabajo realizado por su partido en Madrid para que el Gobierno de Rajoy admitiera la Disposición Adicional Segunda de la Ley de Bases de Régimen Local, a través de la cual la Ley recoge la singularidad vasca y un marco propio que permite “garantizar la autonomía municipal y nuestras competencias”, ha mantenido la portavoz jeltzale Lorea Bilbao. La apoderada del PNV cree que, a futuro, las instituciones vascas deberán “estrechar lazos para afianzar el modelo”.

Por su parte, la portavoz del PP en las Juntas Generales, Esther Martínez, ha negado que la Ley sea farragosa. “Es tan compleja como necesaria y clarificadora de las competencias municipales”, debido a la situación generada en los ayuntamientos. La misma se basa en el principio de “una administración, una competencia, una financiación” e intenta cubrir una “debilidad” en Euskadi que es la de no disponer, "30 años después", de una Ley Municipal, en lo que ha coincidido con el resto de grupos junteros. “Sólo Ceuta, Melilla y Euskadi, no la tienen”, ha añadido Joseba Gezuraga, de Bildu, en referencia a esta Ley.